



## ADIERAZPEN INSTITUZIONALA BRUSELAKO ATENTATUAK

GOBERNU BATZORDEAK ONARTUA, 2016/03/22an EGIN BILKURAN

Bruselan izandako atentatu basatiaren aurrean, Atarrabiako Udal honek, bere eta ordezkatzan dituen herritarren izenean;

- 1- Bere atsekabe eta gaitzespen erabatekoa adierazi nahi ditu, Nafarroa eta Europa osoko jendartean eragin duen nahigabearekin eta astinduarekin bat eginez, gaur Belgikan gertatu diren atentatuen aurrean, kalte konponezinekoak eragin, pertsona errugabeei bizia kendu eta hamarka zauritu eragin dituztenak. Atentatua, gainera, Europaren bihotzean kolpatzeko eta izua eragiteko egin da.
- 2- Biktinekiko, hauen senitartekiko eta Belgikako herritarrekiko bere dolumina eta elkartasuna adierazi nahi du, halako une izugarrian. Halaber, ISISen atentatu guztiak gaitzetsi nahi ditu, berriki Istanbulen gertatukoak eta gizateria osoaren aurka egin dituenak gogoan. Elkartasun zintzoena haietan gertatutako biktima guztiekiko.
- 3- Dolu gisa, Udaletxeko aurrealdean diren banderak masta erdian paratzea erabaki du.
- 4- Atarrabiako herritarrak gonbidatu nahi ditu martxoaren 23an, 12:00etan, Udaletxeko aurrealde nagusiaren parean egingen den elkarretaratzean parte har dezaten.

### UDALEKO TALDE SINATZAILEAK:

EHBILDU	GEROA BAI	UPN	IE	PSN